

112. ALEA, 2021ko URTARRILA

Urtea estreinatu berri dugu, hitzarmenik gabeko 5. urtea da eta iraungitako hitzarmenarekin lau urte hauen balantzea egiteko garaia dela uste dugu. Urtez urte banakatuko dugu hitzarmenarekin zer gertatu den, bai Enpresa Batzordean, bai TRIZrekin. Kontuak ateratzea hainbeste modan jarri diren honetan, gauza bera egingo dugu nominako kontzeptu gehienetan KPIaren igoerarik ez izateak ekarri digunarekin (kontuan hartu gabe historikoki KPIarekin bat egin duen igoera hipotetikoa) eta kanpoan uzten ditugu bidaiak, janariaren balioa eta ikasketen laguntza. Aipamen berezia egingo diogu txanda kontratuari; izan ere, oso kaskarra iruditzen zaigu enpresari hainbeste eman dioten lankideek aurre erretiro duinik izateko eskubidea ez izatea. Kontuak ateratzeko, **adibidetzat jarri dugu 7. taldea, hiru bosturtekorekin** eta ERTEa aplikatu ez zaiona (TRIZkoa izango da, baina funtsean bakarrik, soldatan ez delako...) altzairutegiko lan sistemetan, estresaren aurkako 4x3 eta hiru txandatakoa dituena. Honekin batera doaz 2017. 2018. eta 2019. urteetako soldata taulak, eguneko kontzeptu guztietan KPIren igoerak dituztenak, bakoitzak bere kontuak atera ditzan.

2017

LABek 2017. urtearen hasieran Batzordearen plataforma bateratua egiten hastea proposatu zuen, eta lehenik eta behin ELAK baino ez zuen onartu. Urte erdialdera arte ez zen Batzordearen plataforma sortu eta negoziazio mahaia osatu, eta 31 lanpostuko amortizazioen kontsulta epe batetan murgilduta, LABek negoziazioari ekitea proposatu zuen (artikulu hori aldatzea komeni bait zelako). Gainerako sindikatuen aldeko bozka jaso zuen, UGTren abstentzioak izan ezik (**eta hori ez geundela ERTEan**). Urrian eman zen negoziazioari "hasiera" emango zion lehen bilera, metodologia bateratuz eta "teorikoki" (oraindik ez dugulako ezagutzen TRIZren plataforma), bi aldeek beren plataformak entregatuz. Lehenik eta behin, Juana Mariren agenda arazoak aitzakiatzat hartuta, eta Lanerako Plan Oso bat sortzen zeudela ondoren (zeinetan hitzarmena zati txiki bat zen, Bastegietaren arabera), TRIZren aldetik, negoziazioa ez da hasten, baina bilerak aстерo egiten dira (astearteetan Batzordea eta ostegunetan negoziazio mahaia TRIZrekin).

Urte guztietako taulak aterako ditugu aipatutako hiru lan sistemekin, 2016. urteko kopuru gordinetatik abiatuta. Kalkuluak KPIaren arabera egingo ditugu (kobratu behar genuena) eta KPIrik gabe (kobratu duguna).

	3 TXANDA	4.TXANDA	4x3
--	----------	----------	-----

2016ko TAULAK	40095,15	46760,00	45259,61
2017 KPI 1,1%	40536,19	47274,36	45757,46
2017 IGOERA BARIK	40095,15	46760,00	45259,61
ATZERAPENAK 2017	441,04€	514,36€	497,85€

2017ko KPIren eta 2017ko igoyerarik gabeko zenbatekoen arteko aldea aurtan zor dizkiguten **atzerapenak** dira.

- 3 txandako lan sisteman: **441,04€**
- 4.txandako lan sisteman: **514,36€**
- 4x3 lan sisteman: **497,85€**
- 4x3 lan sisteman: **4379,60€**

2018

TRIZk negoziazioa gelditzeko asmoarekin hasi du urtea (ez da hasi), eta LABek eta ELAk **ezetz** esan diote. Aurrera egiteko asmoz, LABek Batzordearen plataforma ematea proposatzen du baina gainerako sindikatuak ezetz esaten diote. Ostegunero TRIZrekin egiten diren bilerek minutu eskas irauten dute, eta LABek ordezkari bat bidaltzea erabakitzen du, bileretara huts egin gabe. Bilerak penarik eta loriarik gabe igarotzen dira, eta horietan TRIZk bakarrik entzuten du: **"Ez dugu ezer berririk esateko"**. Atzean geratu dira Juana Mariren agenda arazoak eta Lanerako Plan Integralaren sorrera. Minutu bateko bileretan, bilera horien kostuei buruzko iruzkinak egiten dira, eta TRIZk behin eta berriz proposatzen du horiek etetea, hitzarmena negoziatzeko erabili beharrean. Negoziaziorik ezaren egoera desblokeatzeko asmoz, LABek Batzordearen plataforma entregatzea proposatu du, eta LAB eta ELAren botoekin ematea erabakitzen da. TRIZk esan du ezin dela negoziatu kostuak handitzea dakarren ezer, eta aldebakarreko erabaki batekin bileretara gehiago ez joatea erabakitzen du. LABek lan ikuskaritzan egoera salatzea proposatu du. UGTk hitzarmen express bat negoziatzea proposatu du KPIekin eta txanda kontratuarekin. LABen ustez, egoera hori negoziazioa blokeatuta dagoenean eta aurrera egiteko aukerarik ez dagoenean eman behar da, baina orain arte ez dugu ezagutzen enpresaren plataforma eta, beraz, ez da negoziatzen hasi. Azaroan dugu azken bilera, eta TRIZk berriro ere ez du parte hartzen.

	3 TXANDA	4.TXANDA	4x3
2016ko TAULA	40095,15	46760,00	45259,61
2018 KPI %1,2	41022,62	47841,65	46306,54
2018 IGOERA BARIK	40095,15	46760,00	45259,61
ATZERAPENAK 2018	927,42€	1081,65€	1046,93€

2018ko KPIren eta 2018ko igoerarik gabeko zenbatekoen arteko aldea aurten zor dizkiguten **atzerapenak** dira.

- 3 txandatako lan sisteman: **927,42€**
- 4.txandako lan sisteman: **1081,65€**
- 4x3 lan sisteman: **1046,93€**

2019

Martxoan ikuskatzailearekin bilera egin genuen eta TRIZk enpresaren egoera txarra aipatzen du (2009.urtetik errepikatzen den mezua). Laneko ikuskatzaileak atal sindikal bakoitzari galdetu digu zein den bakoitzaren planteamendua:

LAB: TRIZk bere plataforma entregatzea eta gure hitzarmenaren ganorazko negoziazioa hastea

VTR: LABen proposamenera gehitzen da

ELA: bere iritzia berarentzako gordetzen du

UGT eta CCOO: Enpresaren egoera kaskarra dela esaten dutenez ez dute plataforma eskatuko.

Lan ikuskariaren berbak hurrengoak izan ziren: ***"Horren gaizki zaudete sindikatuen artean ados jartzeko gai ez zaretelako, eta Zuzendaritza horretaz baliatzen da. Gehiengoaren jarrerarik ez badago, nik ezin diot ezer eskatu Zuzendaritzari "***.

Hauteskunde-kanpainan, sail sindikal guztiek iraungitako gure hitzarmeneko artikulua hobetzeaz hitz egin genuen, eta atal guztien intereseko puntuak izan ziren: txanda kontratua, soldata taulak eguneratzea, norberaren aukerako egunak eta lana eta familia bateragarri egiteko egunak.

Kanpaina hori ikusita, LABek berriro planteatu du hitzarmena negoziatzen hasi behar dela. Batzordearen plataforma eguneratu beharra ikusten da, atal sindikal berri bat sartu baita.

	3 TXANDA	4.TXANDAN	4x3
2016ko TAULA	40095,15	46760,00	45259,61
2019 KPI %0,8	41350,80	48224,30	46676,99
2019 IGOERA BARIK	40095,15	46760,00	45259,61
ATZERAPENAK 2019	1255,66€	1464,38€	1417,38€

2019ko KPIren eta 2019ko igoerarik gabeko zenbatekoen arteko aldea aurtan zor dizkiguten **atzerapenak** dira.

- 3 txandatako lan sisteman: **1255,66€**
- 4.txandako lan sisteman: **1464,38€**
- 4x3 lan sisteman: **1417,38€**

2019an txanda kontratuarekin gertatutakoaren laburpen txiki bat egingo dugu. Dakizuenez, txanda kontratua TRIn indarrean egoteari 2018ko abenduan utzi zion, eta 14 lankidek "bahituta" geratu ziren, legeak indarrean jarraitzen duen arren. Aurreko LABEAN batean esan genuen bezala, Enpresari ekonomikoki errentagarria zaion eskubide bati heldu ezin diote "bahitutako" lankideak (enpresaren helburua plantilla finkoa kentzen joatea dela uste dugu). Gai honekin gertatutakoaren kronologia txiki bat egiten dugu. 2019ko ekainean, LABek dinamika bat proposatu zion Batzordeari txanda kontratuarekin: sinadurak biltzea, propaganda egitea kartelak eta eranskailuak jarrita, mobilizazioak egitea eta, beharrezkoa balitz, mobilizazio horiek areagotzea. LAB, UGT, CCOO eta VTR sindikatuen aldeko eta ELAren aurkako botoekin sinadurak biltzen hasi dira. Sinadura horiek TRIZri ematen zaizkio eta axolagabe jasotzen ditu (jasotzen diren moduan ia axolagabetasun berarekin). LABek dinamikaren mobilizazioen eta gainerako puntuei buruz galdetu zuen, eta berriro ere isiltasuna jaso genuen erantzun gisa. Ikusten dugu txanda kontratua garrantzizko puntua dela sindikatu guztien hauteskunde kanpainan, baina egia esateko, EZ DAGO EZER EGITEKO BORONDATERIK!!!

2020

Otsailean, eta plataforma eguneratuta, negoziazioari ekiteko eskatu du LABek. ELAk planteatu du ea une egokia den hitzarmena negoziatzeko, eta bere proposamenari abstentzio ematen dio UGT eta CCOOrekin batera; LABek eta ESKk uste dute unea badela (**nahiz eta LABi iruditzen zaion 3 urte daramatzagula galduta**). Baiezkoaren gehiengoarekin, TRIZri eskatzen zaio hitzarmenaren negoziazioari ekitea. Lehenengo bileran, TRIZk esan du aurreko urteko emaitzak mahai gainean izan arte itxarongo duela (otsailean aurreko urteko datuak ezagutzen ez baditugu jai daukagu...) eta ikusten dugu aitzakiekin hasten direla!!

ELAk berriro galdetu du ea bozkatutakoarekin jarraitu behar den, eta berriro ere abstenitu egin da bere proposamenarekin (zur eta lur geratzeko moduko); **LABek, ESK-k eta CCOOK** bozkatutakoarekin aurrera jarraitzea, eta **UGTk ezetz** esan du. Gehiengo horrekin, bai Enpresa Batzordeak bai TRIZk negoziazio mahaia izendatzen dute baina bileren egutegia zehaztu gabe geratzen da 2019ko datu ekonomikoak ezagutu arte!

Maiatzean, ERTE baten negoziazio aldian murgilduta, UG Tk bere proposamen sortan, "lan hitzarmena negoziatzen ez hastea ERTE batean gauden bitartean" proposatzen du. LABek uko egin dio proposamen hori Batzorde gisa egiten diren eskaeren barruan sartzeari, baina ELAren eta UGTren aldeko bozkekin sartu egiten da. Enpresari bide arriskutsu bat irekitzen zaio, gertatzen ari zaigun bezala, ERTEak kateatzen baditu, ez dugu inoiz hitzarmena negoziatuko, Batzordearen gehiengoak kontrakoa bozkatu arren.

2019ko emaitzen zai jarraitzen dugun bitartean, maiatzaren 29an, LABek negoziazioaren hasiera mahai gainean jarri du berriro, eta berriro ere erantzunik gabe geratzen gara.

Uztailen, LABek berriro eskatu zuen hitzarmenaren negoziazioa hasteko, eta TRIZk honako hau erantzun zuen hitzez hitz: **"Enpresak ez du egokitzat ikusten iraungitako hitzarmenaren negoziazio erronda bat hastea; izan ere, tamalez, enpresak duen egoera ekonomikoak, zuek badakizuen bezala, eragotzi egiten du TRIk ezin izango duela soldata masa handitzeko konpromisoa hartu, eta, gainera, kostuak murrizteko neurriak planteatu beharko ditu".**

Irailean LABek negoziazioaren hasiera eskatu zuen berriro, eta ELAk eta UG Tk bere egin zuten TRIZren diskurtsoa, eta esan zuten ez gaudela hitzarmena negoziatzeko momentu eta baldintzetan, noiz egongo garen erantzun barik.

Gehiengoak negoziatioari ekin behar zitzaioela bozkatu zela azpimarratu ondoren, Enpresa Batzordeko presidentek negoziatio metodologia eskatu zion TRIZri, eta honek **"metodologia bat sortzeko asmorik"** ez duela erantzun zuen.

TRIZk inposatu digun azken ERTE honen negoziatioan, UG Tk bere proposamenetako batean berriro eskatu du ez dadila hitzarmena negoziatu ERTEan gauden bitartean, eta LAB horren aurka agertu da.

	3 TXANDA	4.TXANDAN	4x3
2016ko TAULA	40095,15	46760,00	45259,61
2020 KPI %0	41350,80	48224,38	46676,99
2020 IGOERA BARIK	40095,15	46760,00	45259,61
ATZERAPENAK 2020	1255,66€	1464,38€	1417,38€

2020ko KPIren eta 2020ko igoyerarik gabeko zenbatekoen arteko aldea aurtan zor dizkiguten **atzerapenak** dira.

- 3 txandako lan sisteman: **1255,66€**
- 4.txandako lan sisteman: **1464,38€**
- 4x3 lan sisteman: **1417,38€**

TXANDA KONTRATUA

Apirilean halabeharrezko ERTEaren negoziazioan, LABek txanda kontratua sartu zuen bere negoziazio proposamenen artean, bai arriskuko langileak fabrian izatea saihestuko genukeelako, bai enpresaren kostuak murriztuko lirakeelako. Atal sindikal guztiak ados zeuden, baina TRIZk esan zuen ez zela txanda kontratuaz hitz egiteko garaia eta lekua. LABek ERTEaren akordio osagarri moduan sartzeko proposatu zuen baina TRIZk ezetz esan zuen. ERTEren negoziazioa akordiorik gabe itxi bezain pronto, TRIZko kide batek galdetu zuen ea ezezkoa TRIZk txanda kontratua ez onartzearekin zerikusia zuen, eta LABek BAIETZ erantzun zion (negoziatio horretan klausula bat sartu zen, akordio bat egotekotan COVID-19k eragindako salbuespenezko egoerarekin lotzen zuena).

Maiatzean beste COVID ERTE bat negoziatu zenean, LABek berriro proposatu zuen txanda kontratua, eta DTRIK ezetz esan zuen, baina oraingoan kostuak handitzea dakarrelako (apirilean ez zen horri buruz hitz egiteko unea eta maiatzean kostuak handiak zirelako). TRIren errealitate historikoarekin bat ez datozen kontuak ateratzen dituzte. Esan dutenez, edozein taldetako pertsona bat aurre erretiroa hartzen duenean, talde bereko pertsona bat sartzen da eginkizun horiek betetzera, nahiz eta guztiok dakigun ez dela horrela izan eta ez dela hala izango (txanda kontratuari heldu behar zion pertsona orori azken hilabetean bere kategoriari uko egiteko eskatzen zitzaion), plantilla arintzeko helburuarekin batera kobrantza taldeak arintzen joatea baitago.

Orain ekainaren 30era arte jasaten ari garen ERTEaren negoziazioan, LABek txanda kontratua sartu du bere proposamen sortan berriro ere, baina oraingoan ez du Batzordearen iragazkia gainditu ere egin. ELAk eta UG Tk kontratan bozkatu dute, ERTE baten negoziatioa ez delako aldarrikapen horietarako lekua negoziatzeko lekua. ELAk eta UG Tk galtzen ari garen lan eskubide horien alde borrokatzeko foro egokia zein den esateko esperoan gaude.

Hau da hitzarmenaren eta txanda kontratuaren inguruko negoziatioen inguruko kronologiak ekarri duena, **ORAIN ONDORIOAK ATERATZEKO ORDUA HELDU ZAIGU:**

Esan behar da LAB ados dagoela hitzarmena negoziatzeko unea ez dela dioten sindikatuekin, **DUELA 4 URTE NEGOZIATU BEHAR ZELAKO!!!** LABetik, TRIZ fiskalizatzen egon behar ziren sindikatu horiei hurrengoa galdetu diegu: Noiz iritsiko da hitzarmena negoziatzeko unea? Norbaitek espero du egunen batean TRIZ zapirik gabe etorriko dela bileretara? Inork gogoratzen al du TRIZren plataformaren bat murrizketarik gabe?

Argi dago negoziazioetarako une onak eta hobeak egongo direla, baina garrantzitsuena lan eskubideen iturria ahalik eta lasterren moztzen saiatzea dela, pixkanaka ihes egiten uzten ari baikara eta hustubidetik joaten diren lan eskubideak ez baitira itzuliko. Aurreko hitzarmena sinatu zenetik, plantilla 160 langiletan murriztu da. Behin-behineko langileentzat bermerik ez zuen sinadura hari esker, 2010eko lan poltsako behin-behineko langileak daude oraindik. Guztiok dakigu zer nolako mugikortasuna eta balio aniztasuna jasaten dugun. Guztiok ari gara beherakada nabarmena jasaten erosteko ahalmenean. Egutegiak sarritan aldatzen dira. Ez daukagu ziurtatuta norberaren aukerako gutxieneko egunik (batzuetan zero). Eta hainbeste urtez enpresan lan egin ondoren, aurre erretiroa hartzeko eskubidea kentzen digute.

Ulertzen dugu, baina ez gatoz bat TRIZren jarrerarekin hitzarmena negoziatu nahi ez izateko orduan; izan ere, langileen artean banatzen den gutzia ez dago langabeziara inoiz joaten ez direnen esku. Zaila egiten zaigu ulertzea sindikatu batzuek hartu duten jarrera, "Mesederik" ez badute behintzat. Besteren batek kanpaina egiten du ERTEa adostu ez dugun aurka, baina ez du hitzarmena negoziatzen nahi, nahiz eta plataforma mamitsua egin, batez ere lan bizitza eta familia bizitza uztartzeari dagokionez (presaka ez bagabiltza, gure seme alabek hitzarmen berria negoziatuko dute).

ERTEa ez adosteagatik eta, ondorioz, berregituraketez hitz egiten duten txosten batzuk ontzat ez emateagatik irabazteari utzi diogunari buruzko kontuak ateratzen dituzten horiei esan nahi diegu, inork ez duela animatu TRIZ soldatak ez osatzera. Ahalegin bat egiten badugu eta TRIn 2009tik ezarritako ERTEei begiratzen badiegu, ikusiko dugu bat ere ez dela adostasun batekin joan, baina ia guztietan egon da osagarriren bat edo beste (oporrak, ordainsariak), baita soldataren %92ko osagarriren bat ere. ERTE horietan guztietan ikusi ditugu erregulazio egunetan dauden desproporzioak, eta horrek pentsarazten digu dirua egon badagoela gutxi bada ere, nahiz eta egutegiak astero egiten dituztenentzat izan (autoerregulazioa egiten dutenentzat). Horrekin ikusten da arazoa ez dela osagarria, akordioa lotuta edukitzea baizik.

1 taula honetan, KPIarekin irabazi behar izan dugunaren urteroko soldata gordinen gehiketa egin dugu:

1 TAULA	3 TXANDA	4.TXANDA	4x3
2016ko TAULA	40095,15	46760,00	45259,61
2017 KPI %1,1	40536,19	47274,36	45757,46
2018 KPI %1,2	41022,62	47841,65	46306,54
2019 KPI %0,8	41350,80	48224,38	46676,99
2020 KPI %0	41350,80	48224,38	46676,99
GUZTIRA 2017/2020	164260,41	191564,77	185417,98

2 taula honetan, igoera barik urtero kobratu ditugun urte bakoitzeko gehiketa egiten dugu

2 TAULA	3 TXANDA	4.TXANDA	4x3
2016ko TAULA	40095,15	46760,00	45259,61
2017 IGOERA BARIK	40095,15	46760,00	45259,61
2018 IGOERA BARIK	40095,15	46760,00	45259,61
2019 IGOERA BARIK	40095,15	46760,00	45259,61
2020 IGOERA BARIK	40095,15	46760,00	45259,61
GUZTIRA 2017/2020	160380,60	187040,00	181038,44

1 TAULako eta 2 TAULako GUIZTIRA 2017/2020en arteko kenketa da zor dizkiguten
ATZERAPENAK:

- 3 TXANDATAKO lan sisteman: **3879,85€**
- 4.TXANDAKO lan sisteman: **4524,78€**

UGTk bere plataforman proposatzen zituen igoerekin atzerapenek izan beharko zuketenaren simulazioa egingo dugu, nahiz eta gero igoera horiek gauzatu ahal izateko unea aurkitzen ez duten.

TAULA HAU, IZAN ZITEKEENAREN BAINA EZ ZENAREN IZAN(espero dezagun honek, aldatzeko aukera izatea)!!!

UGTren PATAFORMAREN ARABERA KPI+%3			
	3 TXANDA	4.TXANDA	4x3
2016 TAULA	40095,15	46760,00	45259,61
2017 %4,1	41739,05	48677,16	47115,25
2018 %4,2	43492,09	50721,60	49094,09
2019 %3,8	45144,79	52649,02	50959,67
2020 %3	46499,13	54228,49	52488,46

TOTAL KPI	176874,56€	206276.27€	199657,47€
TOTAL IGOERA BARIK	160380,60€	187040,00€	181038,44€

Lau urteetako TOTAL KPIa eta lau urteetako TOTAL igoerarik gabeko zenbatekoen arteko aldea zor dizkiguten **atzerapenak** dira.

- 3 TXANDATAKO lan sistema: **16494,47€**
- 4.TXANDAKO lan sistema: **19236,27€**
- 4x3 lan sisteman: **18619,04€**

LABentzako esperoan egotea ez da aukera bat, argi dago ez dakigula zeintzuk izango diren baldintza hauetan negoziatzearen emaitzak, kristalezko bola pilarik gabe geratu baitzaigu!!! Baina argi daukagu negoziatzea, EZ DELA SINATZEA! Langileei kalteak eragiten dizkieten artikulu batzuk hobetzen joan daitezke, ez da zertan izan behar "edo dena negoziatzea edo ezer ez negoziatzea". Argi daukagu ERTE bat osatzeko dirua bazegoela, enpresak eskaini digulako, ba diru hori hitzarmen kolektibo bat negoziatzeko eta galtzen ari garen ahalmena, lanpostuak eta lan eskubideak galtzeari uzteko izan beharko luke. Irtenbide bat inoiz ezin da izan itxaroten egotea, arazoei aurre egin behar zaie. Ezin dugu espero, egunen baten TRIZ hitzarmena negoziatzeko gogoekin etorriko denik eta honegatik LAB eta ESKK, asteazkenero mobilizazioak deitu ditugu "ERTE GUTXAIAGO, HITZARMEN GEHIAGO" leloarekin, aldalekuen aurrean 12:45tik 14:30tara

Berandu bada ere, **EZ DUZUE UZTE KOSKA HAU GELDITZEKO ORDUA DENIK?**



Pasa den otsailaren 8an jakin dugu Tubacexeko Zuzendaritzak dituen asmoak langileentzako. Horietako 150 kaleratu nahi ditu, eta gainontzekoak langabeziara bidali nahi ditu lanaldiaren %60a. Egoera koiuntural baterako, egiturazko neurri batzuk jartzen ditu mahai gainean, eta neurri horiek ez datoz bat errealitatearekin, are gehiago, enpresak azken urteetan izan dituen mozkinak ikusita. Patronalaren jokabidearen beste adibide bat besterik ez da, galerak sozializatu eta irabaziak privatizatu. Zer esango du orain Tapiak, aste honetan bertan honelakoak bota dituenen: **"diru publikoa krisian dauden enpresentzat bai, baina baita akziodunak ahaleginduz ere"**. Egoera honi Valvospain enpresan eman diren 79 kaleratzeak gehitu behar zaizkie, gaur Tubacex eta Valvospain, bihar???

LAB patronalak hartutako neurrien kontra dago eta deituta dauden mobilizazioetan parte hartzera animatzen zaituztegu eta lehenengoa datorren osteguna 11an izango da Laudioko Tubacex enpresako atetik irtengo dena.

AIARALDEKO ENPLEGUAREN DEFENTSAN!!!